BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

# ALDIZKARI OFIZIALA

# BOLETIN OFICIAL

XII LEGISLATURA | XII. AGINTALDIA

**Serie B** Información, control e impulso | Informazinoa, kontrola eta sustapena **B Saila**

**XXII** Pregunta escrita | Idatzizko erantzun-eskea **XXII**

Número 173a | Bilbo, 2024ko uztailaren 10a / Bilbao, 10 de julio de 2024 | 173a alea

**ASUNTO:** El funicular de Mamariga

**AUTOR:** Llano Lana, Aitor

**Admisión a trámite**

La Mesa de las Juntas Generales, en su sesión de fecha 9 de julio de 2024, con relación al asunto de referencia, adoptó los siguientes Acuerdos:

**Tramitación:** Admitir a trámite.
**Calificación:** Conformidad con la calificación propuesta por el autor
**Procedimiento de Tramitación:** Normal
**Plazos:**
Remisión respuesta escrita por la Diputación Foral (15 días)
**Otros acuerdos**
Ordenar Publicación en el BOJJGG
Ordenar traslado a los efectos de lo previsto en la regulación aplicable
**Regulaciones:**
Reglamento: Artículo 170 y 92

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 92 del Reglamento de la Cámara, se ordena su publicación para general conocimiento.

Sede de las Juntas Generales de Bizkaia, en Bilbao, 9 de julio de 2024.- La Presidenta de las Juntas Generales, **Ana Otadui Biteri**

**A LA MESA DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA**

Aitor Llano Lana, portavoz suplente del grupo EH Bildu, formula a la Diputación Foral de Bizkaia las siguientes PREGUNTAS PARA SU RESPUESTA POR ESCRITO acerca del funicular de Mamariga de Metro Bilbao.

JUSTIFICACIÓN

Últimamente, entre finales de abril y principios de mayo, uno de los funiculares que conecta la estación de Metro de Santurtzi con el barrio de Mamariga no ha estado operativo por trabajos de mantenimiento o reparaciones, y en general, la frecuencia ha sido de 10 minutos. Esta situación se ha repetido desde la primera semana de junio.

Ello ha generado malestar y hartazgo a las personas usuarias, ya que la sensación que deja es que normalmente sólo se puede utilizar uno de los dos funiculares disponibles, al estar el otro averiado o siendo objeto de mantenimiento.

**GAIA:** Mamarigako funikularra

**EGILEA:** Llano Lana, Aitor

**Izapidetzeko onartzea**

Aitatutako gaia dala-ta, hurrengo Erabagiak hartu ditu Batzar Nagusietako Mahaiak 2024ko uztailaren 9an izandako bileran:

**Izapidea:** Izapidetzeko onartzea
**Sailkapena:** Egileak proposatutako sailkapenagaz ados

**Prozedurea:** Arrunta
**Epea:**
Aldundiak idatzizko erantzuna bialtzeko (15 egun)
**Beste erabagi batzuk**
BBNAn argitaratzeko agintzea
Bialtzeko agintzea, araudi aplikagarriak aurreikusitakoaren ondorenetarako
**Araudi oinarria:**
Araudia: 170. eta 92. artikuluak

Guztiak horren jakitun egon daitezan, argitaratzea agintzen da, Batzar Nagusien Araudiaren 92. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusietako egoitzan, 2024ko uztailaren 9an.- Batzar Nagusietako Lehendakaria, **Ana Otadui Biteri.**

**BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIARI**

Aitor Llano Lanak, EH Bildu taldeko bozeramaile ordeak, Bizkaiko Batzar Nagusien araudiak ahalbidetzen duen moduan, Bizkaiko Foru Aldundiari IDATZIZKO GALDERA hauek aurkezten dizkio Metro Bilbaoko Mamarigako funikularren inguruan.

ARRAZOIKETA

Azkenaldi honetan, apirilaren amaieraren eta maiatzaren hasieraren artean, Santurtziko Metro geltokia Mamariga auzoarekin lotura egiten duen funikularretako bat ez da operatiboa egon, mantentze lanengatik edo konponketengatik, eta maiztasuna 10 minutukoa izan da, orokorrean. Egoera hau errepikatu da ekainaren lehenengo astetik.

Horrek ezinegona eta asperdura eragin dizkie erabiltzaileei, zeren eta uzten duen sentsazioa hurrengoa da: eskura diren bi funikularren artean soilik bat erabil daitekeela normalean, bestea matxuratuta dagoelako edo mantentze-lanak egiten ari zaizkiolako.

Tal y como se puede ver en la web de Metro Bilbao, en febrero de 2022 se realizó un "examen exhaustivo" de los funiculares de Mamariga, al haber cumplido estos las 12.500 horas de servicio. En ese momento se ofreció un servicio de bus de conexión de este barrio con el centro de Santurtzi para sustituir a los funiculares, ya que ambas unidades quedaban paralizadas.

Desde aquella última revisión, ni en 2023 ni en 2024 ha habido noticias en la web sobre cualquier tipo de mantenimiento o reparación, pero es muy frecuente observar cómo a lo largo del año alguna de estas unidades del funicular no está operativa por los motivos citados.

Por todo ello, formulamos a la Diputación Foral de Bizkaia las siguientes PREGUNTAS PARA SU RESPUESTA POR ESCRITO:

1.- ¿Con qué frecuencia o cada cuántos viajes se deben realizar las revisiones y/o mantenimiento de los funiculares de Mamariga?

2.- ¿Cuántas reparaciones y labores de mantenimiento se han realizado desde el "examen exhaustivo" de 2022 hasta la fecha? ¿Cuál ha sido su incidencia en el servicio (nº de viajes/frecuencia...)?

3.- Para los exámenes programados, ¿qué recursos se utilizan para informar a las personas usuarias? ¿Y con qué antelación?

4.- ¿Qué frecuencia deberían tener los funiculares?

5.- ¿Cuál ha sido la frecuencia de los funiculares desde su puesta en marcha?

6.- ¿Hay algún informe sobre todas las horas en las que los funiculares han estado en funcionamiento y en parada? En caso afirmativo, solicitamos copias de los del año 2023 y de los que puedan existir en el año 2024.

7.- ¿Existe alguna limitación técnico-operativa para que la frecuencia de cada funicular no sea inferior a 10 minutos?

Bilbao, 3 de julio de 2024

**Aitor Llano Lana,**
Portavoz suplente del grupo EH Bildu

Metro Bilbao webgunean ikus daitekenez, 2022ko otsailean Mamarigako funikular hauen “azterketa sakon” bat egin zen, zerbitzuzko 12.500 orduak bete zituztelako. Momentu horretan auzo hau Santurtziko erdialdearekin lotzeko bus-zerbitzu bat eskaini zen funikularrak ordezkatzeko, bi unitateak geldituta geratzen baitziren.

Azken errebisio horretatik hona, ez 2023an ezta 2024an ere, webgunean ez da berririk izan edozein mantentze-lanari edo konponketari buruz, baina oso ohikoa da ikustea nola urtean zehar batengatik edo bestarengatik funikular horietakoren bat martxan ez dagoela kasu hauengatik.

Hori horrela, IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERA hauek egiten dizkiogu Bizkaiko Foru Aldundiari:

1.- Zein maiztasunarekin edo zenbat bidai betetakoan egin behar dira Mamarigako funikularren azterketak edota mantentze-lanak?

2.- Zenbat konponketa eta zenbat mantentze-lan egin dira 2022ko “azterketa sakon” horretatik gaur arte? Zein izan da horren intzidentzia (bidai kopurua/maiztasuna, …) zerbitzuan?

3.- Programatutako azterketetarako, zeinek dira erabiltzaileei jakinarazteko erabiltzen diren baliabideak? Eta zein aurrerapenarekin?

4.- Zein maiztasun izan beharko lukete funikularrek?

5.- Zein izan da funikularren maiztasuna martxan jarri zirenetik?

6.- Ba al dago txostenik funikularrak martxan eta geldirik egon diren ordu guztien gainean? Erantzuna baiezkoa bada, 2023. urtekoen kopiak eta 2024. urtean egon daitezkeenak eskatzen ditugu.

7.- Ba al dago nolabaiteko muga tekniko/operatiborik funikular bakoitzaren maiztasuna 10 minututik beherakoa ez izateko?

Bilbon, 2024ko uztailaren 3an

**Aitor Llano Lana,**
EH Bildu taldeko taldeburuordea